

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M. ENTITATEAREN ATEZ ATEKO ERDI MAILAKO INGURUMEN
TEKNIKARIAREN LAN POLTSA ERATZEKO OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien Xedea Garbitania Zero Zabor S.M. enpresarako erdi mailako ingurumen teknikari aukeratze prozesua arautzea da, sortu dakioken behin behineko, aldi baterako beharrak asetzeko lan poltsa eratuko delarik eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da.

Oinarri hauen xedea Garbitania Zero Zabor S.M.an erdi mailako ingurumen teknikarien lan poltsa eratzeke hautaketa prozedura arautzen da.

Ingurumen teknikarien urteko ordainkizun gordina 39.370,52 € izango da. Soldata hori kontzeptu guztiengatik izango da, eta 12 hileko ordainketatan eta aparteko bitan, abenduan eta ekainean, egingo da.

Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztu beharko du lanaldia, betiere lanpostuaren izaeraren eta premien arabera, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da.

Hautaketa prozesua gainditzin duten izangaiek lan poltsa eratuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan poltsa hori erabili ahal izango da Garbitaniak izan litzakeen aldi baterako lan premiak betetzeko eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansiaoa Garbitania Zero Zabor S.M.k zehaztutakoa izango da, zerbitzuaren premien arabera. Lanegunak eta ordutegia Garbitania Zero Zabor S.M. k urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren, urtaroaren eta zerbitzuaren premien arabera.

Deialdi honen xede den lanpostuaren EGINKIZUNAK, besteak beste, ondoko hauek dira:

- a) Hondakinen atez ateko bilketa sistemaren inguruko gai guztietan aholkularitza tekniko emate, entitatea sortu duten Udalerriei eta zerbitzua kontratatzen duten gainontzeko Udalerriei zein mankomunitateei.
- b) Atez ateko hondakin bilketa sistemaren, zein konposta egiteko sistemaren, zein frakzioen tratamenduekin zerikusia duten gaietan egunean egotea.
- c) Entitatearen sortzaile diren Udalerrietan eta hornitzaile gisa Garbitania Kontratatu duten udalerriei atez ateko bilketa proiektuen jarraipen tekniko burutu eta sortzen diren arazoak identifikatu, jaso eta dagokien irtenbide teknikoak proposatzea. Era berean, zerbitzuaren optimizazioa lortuaz.

- d) Bezero berrientzat eta Entitate sortzaile diren Udalerrientzat atez ateko sistema ezartzeko proiektuaren azterketa, diagnostikoa, diseinua eta ezarpenaren jarraipen teknikoak burutzea. Horren barruan, ordenantza fiskal zein zerbitzuetako ordenantzen diseinuan laguntzan, IKS sistema ezartzen laguntzea.
- e) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Zuzendaritza Teknikoa eramanago duen ekipo teknikoak ezarritako bilera eta ekintzetan parte hartzea. Zuzendaritza talde horrek horrela ezartzen duenean bezero zein entitatearen sortzaile diren udalerriekin harreman zuzena izatea.
- f) Entitatearen sortzaile diren udalerriei zein bezeroei maiztasun jakin batekin azaldu behar zaizkien jarraipen txostenen arlo teknikoak burutzea.
- g) Arlo teknikoari dagozkion zereginak eta eginkizunak antolatzea Garbitaniaren barruan.
- h) Kontratazioak, diru-laguntzak eta eginkizunak antolatzea Garbitaniaren barruan.
- i) Bilketa datuen analisia, jarraipena eta konparaketak.
- j) Garbitaniako zuzendaritza teknikoak bidalitako beste edozein funtzio betetzea.

3.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK

3.1 Deialdian parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaez erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea.
- b) Nekazal ingeniari teknikoak edo ingurumen teknikari izatea. Biologia, kimika, nekazal edo ingurumen zientzietan lizentziatuak ere presenta daitezke baina postua erdi mailakoa da.
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura edo emantzipatuta bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen. Diziplinazko espedientearen bidez

inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertua ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

d) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorritik.

f) Diziiplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzurik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

g) Idatzizko zein ahozko euskara maila nahikoa duela ziurtatzea, gutxienez 3. Mailako hizkuntza eskakizuna ziurtatzea.

h) B gida baimena edo baliokide baten jabe izatea eta **kotxe bat eskuragarri izatea.**

3.2 BALDINTZA HORIEK GUZTIAK ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA AMAITZEN DEN EGUNERAKO BETE BEHAR DIRA. BALDINTZA HAUEK EDUKITZEN MANTENDU BEHAR IZANGO DU PROZESU GUZTIAN ZEHA, LANPOSTUAREN JABETZA ESKURATU BITARTEAN MANTENDU.

4.- ESKABIDEAK

Izangaiek 3. Oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela eta merituetan baloratzen dena adierazi beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu den eskabidean. (I. eranskina).

Eskaera horiek Garbitania Zero Zabor S.M. ko gerentziari zuzenduko zaizkio.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezen:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:
 - Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea.
 - Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia konpultsatua.
 - Curriculum Vitaea
 - Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia konpultsatua.
 - Bizitza laboralaren txostena.

- Gidatzeko baimena.
- Merezimendu guztien zerrenda aurkeztu beharko da, oinarri hauen I. eranskinean jasotako ereduak erabiliz, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti.
Dokumentu horiek, jatorrizkoak edo fotokopia izan beharko dira.
Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik.
Merezimenduak frogatzen dituzten dokumentu horietan, prestakuntza atalean, ordu kopurua jarri beharko da.
- Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute azterketen faseko ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

ALEGATZEN DIREN MERITUAK EGIAZTATZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK PARTE-HARTZEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTUKO DIRA DEIALDIAN EZARRITAKO EPEAN. BERANDUAGO AURKEZTEN DIRENAK EZ DIRA BALORATUKO.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak aurkeztu behar dira.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, eskaerak eta perfilen egokitasuna aztertuko da.

Kopiak, gaitasuna duen fede emaile publiko baten aurrean konpultsatu ahal izango dira. Hori egin ahal izateko, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztu behar dira.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak, behar bezala beteta, ondorengo helbidera izango dira bidaliak:

- **Garbitania Zero Zabor S.Mren bulegoetan** (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, Hernani, 20120) aurkeztu ahalko dira, 9:00etatik 14:00etara.
- Horrez gain, eskabideak **postetxean** aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 legeak dion bezala, hurrengo helbidera: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina. 20120 (Hernani).

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko. Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari GARBITANIA sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

Horretarako azken eguna, **2018ko apirilaren 13a izango da.**

6.- HAUTAKETA BATZORDEA

6.1. Osaketa:

Hautaketa Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

- Mattin Aldaia (Epaimahaiburua).
- Imanol Manzanares (Epaimahakidea).
- Jon Fernández. Ordezkoa: Mikel Ansa (Epaimahaikideak).
- Jone Urdanpilleta (Epaimahakidea).
- Laura Totorikaguena (Idazkaria).

Hautaketa batzordeari dagokio:

- Eginiko froga guztiak baloratzea
- Oinarri hauek interpretatu eta zalantzak argitu
- Administrazio Kontseiluari kontratatu beharreko hautagaiak proposatzea

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkioak izango dituzte; ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak - titularrak zein ordezkioak – baino gehiago ez badaude.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordezkioak bere ordezkioak jardungo du eta, ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkapena, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu.

Komunikaziorako eta bestelako gora beheretarako, haxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Garbitania, Zero Zabor, S.M, Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa, 20120 Hernani

6.2 Aholkulariak:

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.3 Jarduketa prozedura:

- a) Hautaketa batzordeak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- b) Hautaketa batzordeak proposaturiko izangaiekin zerrenda osatuko da, deialdi honen objektua den behin-behineko beharrak betetzeko.
- c) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiak hautatzeko prozedura honakoa izango da. Hautaketa prozesua hiru fasetan egingo da. Lehenengo aldian 50 puntu emango dira gehienez ,bigarrenean 25 gehienez eta hirugarrenean beste 25 gehienez, totalean 100 puntu.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Garbitaniak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak -baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, legeak babesten dituen kasuak salbu, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Hautaketa prozesua jarraian aipatzen diren fase eta ariketez osatuko da:

1. FASEA.

- Lehen ariketa: Froga teorikoa. (Gehienez 50 puntu)

- o Derrigorrezkoa eta **baztertzailerak**.
- o Lehen ariketa erantzun aukera anitzeko test galdetegia izango da, ez da kenkari gisa jokatu eta epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Galderak oinarri hauen II. eranskinetako gai-zerrendari buruzkoak izango dira, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera.
- o Ariketa hau gainditu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea, hau da gutxienez 25 puntu.

- Oker erantzundako galderak ez dira “kenkari” gisa konputatuko.

Atal honetan 50 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

- **Bigarren ariketa: Euskarako froga.**

- Derrigorrezkoa eta **baztertzalea**.
- Izangaien euskara maila neurtzeko dagokion azterketa egingo da.
- Derrigorrezko **3. Hizkuntza eskakizunari** dagokion euskara maila dutela egiaztatu beharko dute.
- Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gaingiditzen ez dutenak hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira. Froga honek barne eraginak izango ditu eta Garbitaniak ez du inongo ziurtagiririk luzatuko.
- **Ez dute froga hau egin beharrik izango, parte-hartzeko eskaerarekin batera, deialdian ezarritako epean ziurtatzen dutenak 3. Hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla,** betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitze azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak jasotakoaren arabera.

2. FASEA. LEHIAKETA FASEA. (Gehienez 25 puntu)

Curriculumeko merituen balorazioa. Eskainitako lanpostuarekin harremana duen esperientzia baloratuko da 1. fasea gaingiditu duten izangaiekin.

Atal honetan, Epaimahaiak, ondorengo merituak balioztatuko ditu, **aurrez adieraziak eta egiaztatuak izan badira:**

a) Lan esperientzia (gehienez 18 puntu)

1. Teknikari lanetan edo funtzio eta eginkizun antzekoetan lan egindako hilabete bakoitzeko 0,50 puntu emango dira.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 1. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Atal honetan gehienez 6 puntu emango dira.

2. Hondakin atez ateko gaikako bilketaren edo zabor bilketaren inguruan teknikari bezala edo funtzio eta eginkizun antzekoetan lan egindako hilabete bakoitzeko (30 egun) puntu 1 emango da.

Hilabetea baino frakzio txikiagotan lan egindako epealdiengatik jasotako puntu kopurua, 2. atalean jasotako baldintzaren baitako zuzenki proportzionala izango da.

Atal honetan gehienez 12 puntu emango dira.

3. Atal honetan 18 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

b) Prestakuntza: (gehienez 5 puntu)

Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten gaietan emandako prestakuntza ikastaroetan izatea edota ikastaroa gaingitzea.

Gehienera 5 puntu emango dira baremo hauen arabera:

i) Hondakinen inguruko (bilketa, tratamendua, sistemak e.a.) zein kategoriarekin edo atez-ateko bilketa sistemarekin zuzenean zerikusia dutenak honela baloratuko dira:

1. 20 ordu arte: 1 puntu
2. 21 ordutik 50 ordu arte: 1.5 puntu
3. 51 ordutik 80 ordu arte: 2 puntu
4. 81 ordutik 150 ordu arte: 2.5 puntu
5. 150 ordutik gora: 3 puntu

ii) Prestakuntzarengatik gehienez 5 puntu emango dira.

iii) Ez dira baloratuko postua betetzeko eskatzen diren titulazio akademikoak, ezta horiek eskuratzeko ikastaroak ere.

c) Informatika ezagutzak (gehienez 2 puntu)

Informatikako maila zehazteko, meritu bezala, IT txartelen bidez egingo da. Informazio-Gizartean Euskadi Planak bere antolamendura KZGunea zentro publikoetan jartzen dituen moduluen lorpena zuzendutako probaren gaingitzearen bitartez.

Meritu bezala, hurrengo hauek dira kontuan hartuko direnak, dagozkion puntuazioarekin.

- Microsoft Word 2000: 0,50 puntu.
- Microsoft Word XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Microsoft Word XP/2003/2007/2010 aurreratua: 0,50 puntu.
- Microsoft Power Point 2000: 0,50 puntu.
- Microsoft Power Point XP/2003/2007/2010: 0,50 puntu.
- Microsoft Excel 2000: 0,50 puntu.
- Microsoft Excel XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Microsoft Excel XP/2003/2007/2010 aurreratua: 0,50 puntu.
- Microsoft Access 2000: 0,50 puntu.
- Microsoft Access XP/2003/2007 oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Microsoft Access XP/2003/2007 aurreratua: 0,50 puntu.
- Microsoft Access 2010: 0,50 puntu.
- Microsoft Outlook XP/2003/2007/2010: 0,50 puntu.
- Internet oinarrizkoa: 0,25 puntu.
- Internet aurreratua: 0,50 puntu.

Modulu hauen gainditzea egiaztapen-sistemaren bitartez akreditatuko da IT Txartelen bidez. Bertsio bereko oinarrizko eta aurreratua edukitzekotan, aurreratua soilik kontuan hartuko da. Ondorengo bertsioko aplikazio bateko egiaztapenak, aurreko bertsioak baliogabetuko dituzte.

Baliozkoak izango dira Organismo Ofizialek eta Herri Ikastetxeek, aplikazio horiei buruz ematen dituzten kurtso hauen egiaztapenak, hurrengo baremoan:

- 20 ordutik 29 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 0,10 puntu.
- 30 ordutik 49 ordu bitarteko ikastaro bakoitzarengatik: 0,15 puntu.
- 50 ordutik gorako ikastaro bakoitzarengatik 50: 0,25 puntu.

Atal honetan 2 puntu jaso ahal izango dira gehienez.

3. FASEA. ELKARRIZKETA PERTSONALA (gehienez 25 puntu)

Derrigorrezkoa eta ez baztertzaila.

Deialdi bakarraren bidez egingo zaie ariketa honetarako deia hautagaiei, behar bezala justifikatu eta epaimahaia askatasun osoz aztertutako ezinbesteko arrazoi larriak izan ezik.

Elkarriketa pertsonala. Hautaketa Batzordeak elkarriketa bat izango du aurreko faseak gainditu dituztenekin. Elkarriketa lanpostuaren eginkizun eta edukiei buruzkoa izango da.

Beharrezkoa ikusten den kasuan, hautaketa batzordeak kanpo entitate pribatu zein profesional independenteengana jo lezake eginkizun hau burutu eta atal hau balora dezan.

Elkarriketa pertsonalaren bitartez nortasun-ezaugarri orokorrak eta hautagaien konpetentzia profesionalak ebaluatuko dira, lanpostuari dagozkion funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna ebaluatze aldera.

Ariketa honetan gehienez 25 puntu emango dira.

GUZTIZKO PUNTUAZIOAN BERDINKETARIK IZATEKOTAN, BALIO HANDIAGOA EMANGO ZAIO ELKARRIZKETAN LORTUTAKO EMAITZARI.

8.- HAUTAKETA-PROZESUA HASTEKO EGUNA ETA HURRENGOAK

Oposaketako azterketak non, noiz eta zein ordutan egingo diren Garbitaniako web orrian argitaratuko dira (<http://www.garbitania.eus>).

Oposizioegileak deialdi bakarrean deituko dira. Azterketara deitua izan baina aurkezten ez diren oposizioegileak ariketa horretan parte-hartzeko eskubidea galduko dute. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean agertzen direnei.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzen jotzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena...).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaien batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertua utziko du, entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

9.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Garbitaniak, hurrengo hamabost egunen barruan, ebazpena emango du onartutakoen eta baztertua utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzeko.

Ebazpena Garbitaniako honako web orrian argitaratuko da: **www.garbitania.eus**.

Hautaketa batzordeak, ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, hautaketa prozedura gainditu duten izangaien hurrenkeraz argitaratuko du. Ariketa bakoitzaren behin-behineko puntuazioaren aurka egiteko 5 laneguneko epea emango da eta epe horretan erreklamaziorik egongo ez balitz, emaitza behin betikoa izango da automatikoki.

Behin betiko zerrenda, behin-behineko zerrenda argitaratutako era eta modu berean argitaratuko da.

Probak egiten diren datan oraindik ez bada egindako errekurtsua ebatzi, eragindako pertsonak azterketa egiteko aukera izango dute, baina azterketak ez du baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Lan poltsa honen kudeaketa Garbitaniako barne arauen arabera burutuko da.

10.- KALIFIKAZIOAK

Behin elkarrizketa pertsonala eginda, kalifikazioa jendaurrean jarriko da **www.garbitania.eus** web orrian.

11.-EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Epaimahaiak lortutako puntuazioaren arabera lan poltsa eratzea proposatuko dio Garbitaniari.

12.- KONTRATAZIOA

Hautagaiek bi egun baliodunetan gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua egiteko beharrezkoak diren bestelako dokumentazioak aurkeztu beharko dituzte, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita.

13.- LAN-POLTSA

Lan-poltsa eratuko da hautaketa prozesuaren fase guztiak gainditzen dituzten hautagaiekin, hautaketa-prozesuan eskuratutako puntuen hurrenkerarekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile premiak betetzeko. Lan-poltsaren gehieneko indarraldiaren epea bost urtekoa izango da edo deialdi berria egin arteko iraupena izango du.

14.- GORABEHERAK.

Epaimahaiak ahalmena du aukeraketa prozesua behar bezala joan dadin, oinarrietan jaso gabeko guztiaren inguruan sor daitezkeen zalantza eta gora beherak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

15. IMPUGNAZIOAK

Interesatuek, deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren egintza administratibo ororen kontra, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen kontra ere, jo ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduren 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

16.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Izangaien izaera pertsonaleko datuak “giza baliabideak” izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Garbitania Zero Zabor S.M. ek kudeatuko du eta hautaketa-prozesua bideratzeko erabiliko du. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.

Datu pertsonalak tratatuko dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta irailaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren (izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudiaren) arabera.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

Probetan erabili nahi duen hizkuntza/Lengua en que desea realizar las pruebas:

☐ EUSKARA ☐ GAZTELERA

SARRERA ERREJISTROA	GARBITANIAKO INGURUMEN TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak					
NA zkia:		Jaioteguna:		Telefonia:	
Helbidea:				Helbide elektronikoa:	
Herria:		Posta kodea:			
%33ko elbarritasuna edo handiagoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu) / Si tiene una minusvalía del 33% o superior, indique si precisa alguna adaptación especial para realizar los exámenes.					

IKASKETAK

--

EUSKARA

Euskara maila egiaztatzen duen titulua (edukiz gero) / Título acreditativo del nivel de euskera (si se posee)

☐ 1HE/PL 1 ☐ 2HE/PL 2 ☐ 3HE/PL 3 ☐ 4HE/PL ☐ EGA ☐ Besterik / Otros

MERITUAK

LAN ESPERIENTZIA

[illegible]

PRESTAKUNTZA

[illegible]

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- ☐ Hautagaiaren pertsonalitatea eta gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa: nortasun-agiri nazionala edo baliokidea.
- ☐ Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren originala edo kopia konpultsatua.
- ☐ Curriculum Vitaea.
- ☐ Hizkuntza eskabideak betetzen direla ziurtatzen duen agiri originala edo kopia konpultsatua.
- ☐ Alegatutako merituen agirien originala edo fotokopia.
- ☐ Bizitza laboralaren txostena.
- ☐ Gidatzeko baimena.

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion aukeratzeko prozeduran onartua izatea ESKATZEN DU, eta BAIEZTATZEN DU:

- 1) Bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela. Eskatutakoan agiri orijinal bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.
- 2) Pertsonal izaera duten bere datuak, prozesu honetan azaltzen den moduan tratatua izango den fitxategi batetan sartzea baimentzen duela.
- 3) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzeko gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez duela.
- 4) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez duela, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- 5) Diziiplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

Data _____

SINADURA

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDIA:

1. Gaia. Garbitaniari buruz www.garbitania.eus web orrian dagoen informazioa.
2. Gaia. Hernaniko Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza arautzailea.
3. Gaia. Usurbilgo Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza.
4. Gaia. Hondakinei buruzko oinarrizko arautegia. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta kutsatutako urzoruei buruzkoa.
5. Gaia. Aparatu elektriko zein elektronikoen hondakinak (RAEE). Definizioak (110/2015 Errege dekretuaren 3. Artikulua).
6. Gaia. EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra. Xedea eta helburuak. EAE-ko ingurumen politikari buruzko xedapen orokorrak. Ingurumeneko baliabideen babesa. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua: Xedapen orokorrak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
7. Gaia. EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua: Hondakinak. Lurzoru kutsatuak. Ingurumen-politikako tresnak. Ingurumeneko diziplina.
8. Gaia. Urriaren 23ko 26/2007 Legearen 1, 2 eta 3. Kapituluak, Ingurumen alorreko Erantzunkizuna eta uztailaren 18ko 27/2006 legea, Ingurumen alorrean informazioa edukitzeko, parte hartze publikorako eta justiziarako eskubideari buruzkoa (2003/4/CE eta 2003/35/Ce Direktibak barne hartzen ditu).
9. Gaia. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
10. Gaia. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratua eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
11. Gaia. Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumeneko Estrategia 2002-2020 eta III. Ingurumeneko Esparru Programa 2011-2014.
12. Gaia. 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena: Interesatuak. Herri administrazioen jardura: Arau orokorrak, terminoak eta epeak.
13. Gaia. 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena: Dokumentuak jaso eta erregistratzea. Interesduna eta horren ordezkariak. Komunikazioak eta jakinarazpenak.
14. Gaia. Administrazioan Komunikazioa: hizkuntza administratiboaren erabilera zuzena. Komunikazio tipoak, ahozko, telefoniko eta idatzitako. Edukia eta idatzitako dokumentuetako, jakinazpenetako, eskarietako, egiaztapenetako, etab. Aurkezpena.
15. Gaia. Herritarrentzako informazioa eta arreta. Herritarra Zerbitzuen hartzaile bezala eta prestazio publikoak.
16. Gaia. Hiri hondakinak biologikoki tratatzeko sistemak (konpostajea, Biometanizazioa, tratamendu mekaniko-biologikoa, hiri hondakinen balorazio energetikoa, hiri hondakinak kentzea, zabortegeak erabilita). Ezarri beharreko arautegiari buruzko aipamen laburra.
17. Gaia. Hondakinak prebenitu, baloratu eta ezabatzeko moduak. Murrizketarako eta berrerabiltzeko jarduerak. Hiri hondakinen birziklatzea. Hondakinen kudeaketaren hierarkia. Bilketa selektiboak. Garbiguneak.
18. Gaia. Hondakin arriskutsuak: tipologia, arazoa, kudeaketa.

19. Gaia. IKS.
20. Gaia. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa: objektua, aplikazio-eremua, datuen babeserako printzipioak.
21. Gaia. 4/2005 legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Printzipio orokorrak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.